

PRENTSA OHARRAMaiatzaren 11n, larunbata, Bidezko Merkataritza Munduko Eguna
burutuko da**Bidezko Merkataritzako erakundeek deia egin
diete herritarrei, pobreziaren eta
ezberdintasunaren aurka borroka dezaten****“Bidezko Merkataritza gara, eta zu?” goiburupean Iruñeak ere parte hartuko du maiatzaren
11n, larunbatean, Bidezko Merkataritzaren Munduko Egunean**

2019ko maiatzaren 9an- “Bidezko Merkataritza gara, eta zu?” goiburupean, Iruñeko herritarrek ere parte hartuko dute maiatzaren 11n, larunbatean, Bidezko Merkataritzaren Munduko Egunean, ADSIS-EQUIMERCADO, ALBOAN, FUNDACIÓN VICENTE FERRER, OCSI, OXFAM-INTERMÓN, SETEM eta PUEBLOS HERMANOS erakundeek antolatutako jardueretan. Bidezko Merkataritzako erakundeek deia egin diete herritarrei, beste merkataritza-eredu baten bidez, munduko pobreziaren eta desberdintasunen aurka borrokatzen duen nazioarteko mugimendu honetan ere parte har dezaten. Merkataritza-eredu hori, zenbait printzipiotan oinarritzen da, hala nola lan-baldintza duinak bermatzea, gizonen eta emakumeen arteko soldata-berdintasuna, haurrak ez esplotatzea edo ingurumena babestea.

Iruñean, Sarasate Pasealekuan 11:30etatik 20:30etara burutuko da, eta bertan, **ADSIS-EQUIMERCADO, ALBOAN, FUNDACIÓN VICENTE FERRER, OCSI, OXFAM-INTERMÓN, SETEM eta PUEBLOS HERMANOS** erakundeek antolaturiko adin guztientzako ekitaldiak eta tailerrak izango dira. Gainera bidezko merkataritzaren produktuak salgai egongo dira herritarrok kontsumo alternatiba honetara hurbil daitezten. Horrez gain, jardunaldian zehar herritarrek **gizarte-sareetako #SomosComercioJusto kanpainan** ere parte hartzeko aukera izango dute, mugimendu honekin bat egiteko eta mundu bidezkoago batekin konpromisoa hartzeko.

Gaur egun, Nazio Batuen datuen arabera, **783 milioi pertsona pobrezian bizi dira**, hau da, egunean 1,90 dolar baino gutxiago dute. Azken urteetan zifra murriztu bada ere, desberdintasuna handitu egin da. Aldi berean, **biztanle aberatsen % 1ak biztanle behartsuen % 50ak izan zituen diru-sarreraren bikoitza jaso zuen**. Bestalde, enpleguak, baldintza duinak ez baditu, ez du bermatzen pobrezia gainditzea. Izan ere, mundu osoan, OITren arabera, **langile-klasearen ia heren bat pobrezia-baldintzetan bizi da**, bere oinarritzko beharrak ase gabe. Errealitate horretan emakumeak dira bereziki kaltetuenak, izan ere, **mundu mailan, gizonezkoek baino % 23 gutxiago irabazten dutelako batez beste**. Azkenik, garrantzitsua da nabarmentzea klima-aldaketak erkidego behartsuenetan bereziki eragiten duela. Azken urteetan, nekazaritzarako erabilitako luraren erdia baino gehiagok lurzorua nariaduraren eragina izan du, eta jarduera horretan, 2.600 milioi pertsona baino gehiago aritzen dira.

Datu horiek kontuan hartuz, OITk berak hauxe ohartarazi du: "ez bada neurririk hartzen arintzeko, pobrezia belaunaldiz belaunaldi betikotu daiteke, ezegonkortasun sozioekonomikoa areagotuz, eta hazkundearen aldeko politikari emandako laguntza kaltetuz".

Horren aurrean, Bidezko Merkataritzak beste eredu ekonomiko eta komertzial bat dela uste du, pertsonak eta ingurumena interes ekonomiko nagusiak izan daitezten. Horrela, Bidezko Merkataritza printzipio hauetan oinarritzen da: lan-baldintza duin eta seguruak bermatzea bere ekoizleentzat, soldata egokia ordaintzea, gizonezko eta emakumeentzat berdina dena, haurrak lanean ez esplotatzea eta ingurune naturala errespetatzen duten teknika eta prozedurak erabiltzea ekoiztean. Horrela, NBEk ezarri dituen eta 2030. urtea baino lehen bete beharko diren Munduko Helburuak (garapen iraunkorreko helburuak) errazago gauzatu dira.

Bidezko Merkataritzako nazioarteko sarearen barruan 2.000 erakunde ekoizle baino gehiago dago Afrika, Asia, Latinoamerika eta Karibeko 75 herrialde baino gehiagotan banatuta. Hor, 2 milioi pertsonak baino gehiagok lan egiten dute. Horrela, lau erakundetatik hiruk elikagaiak eta lehengaiak (esaterako, kotoia) ekoizten dituzte. Bestalde, Bidezko Merkataritzaren Munduko Erakundearen arabera, 250 erakundek ehungintzan eta artisautzan lan egiten dute.

Espanian, Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundearen erakundeek 150 denda eta saltoki espezializatu kudeatzen dituzte. Horrez gain, produktu horiek txikizkako beste establezimendu batzuetan, saltoki handietan eta ostalaritza-kateetan ere badaude. 2017. urtean 43 milioi fakturatu ziren, beraz, aurreko urtean baino % 8 gehiago. Elikadura, eta kafe, azukrea eta kakaoa bereziki dira salduenak. Salmentek gora egin badute ere, gure herrialdea azken postuan dago Europako gure auzokoen aldean.

Bidezko Merkataritzaren Munduko Eguna Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundeak sustatzen du gure herrialdean, eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziaren finantzazioa du. Bidezko Merkataritzaren Munduko Egunaren ekitaldien agenda osoa hemen kontsulta daiteke: www.comerciojusto.org

Informazio gehiago:

Susana Mendivil (639 361 972)